

2021/2022

ELKARBIZITZA PLANA

Arantzazuko Ama Ikastola



AURKIBIDEA

1. Sarrera

- *Ikastetxearen ezaugarriak. Testuingurua.*

2. Elkarbizitza definizioa.

3. Ikastetxearen elkarbizitzaren diagnostikoa.

- *Eremuak*
- *Irakasleak*
- *Ikasleak*
- *Familiak*
- *Jangelako begiraleak*
- *Eskolaz kanpoko ekintzetako begiraleak.*

4. Helburu orokorrak.

- *Eremuak*
- *Helburuak*

5. Helburuen lorpena sustatzeko egiturak.

6. Bizikidetza planaren urteko zehaztapenak.

7. Helburuak lortzeko jardueren planifikazioa.

8. Zabalkuntza.

9. Jarraipena eta ebaluazioa.

10. Eranskinak

1.Sarrera

Hezkuntza-sistemaren helburuetako bat gaitasun sozial eta gizabidezkoak garatzea da, elkarbizitzarako gaitasuna alegia (236/2015 Dekretua, EAeko eskola-curriculumeko zeharkako oinarrizko gaitasuna). Bizitzarako ikasketarik baliagarriena pertsona bakoitzak bere buruarekiko eta beste pertsonetikiko harreman positibo bat lortzea da, eta hori da hezkuntzaren ardatz nagusia, zuzentasuna, berdintasuna, elkartasuna, elkarrekiko errespetua eta indarkeriarik ezaren balioei dagokienez. Horregatik, XXI. mendeko heziketaren erronka elkarbizitza, bakea eta giza-eskubideen aldeko heziketaren bidez aurrera egitea da.

Arantzazuko Ama Ikastolaren izaera inklusiboa, ikasle eraikitzailea, hezikidetzan eta errespetuan oinarritua eta partehartzailea da besteak beste. Hau horrela, IHPan helburu nagusietako bat, ikasleak giza eskubideen, balio etikoen, aniztasunean, elkar-onartzean eta askatasunen errespetuan hezte da, identitate, orientazio sexual edo beste edozein bazterketa-jokabideak ekiditeko.

Ondorengo dokumentua garatzeko, ikastolako estamendu guztiek parte hartu dute; familia, langile, ikasle eta irakasleak. Estamentu guzti hauek koordinatzeko eta prozesuaren buru izateko elkarbizitza behatokia eratu zen. Organo honek izan du proiektuaren ardura nagusia eta honen osaketa egiteko ikasturte hasierako gela bileretan familiei proiektuaren berri eman zitzaizen eta parte hartzera gonbidatuak izan ziren. Izen eman zuten familiekin guraso batzordea osatu zen eta batzorde honetatik bi guraso izendatu ziren behatokiko partaide izateko, irakasle, begirale eta zuzendaritzako kideekin batera . Guztira behatokiko 7 bilera burutu dira, 2 bilera 1go hiruhilekoan, 3 bilera 2. hiruhilekoan eta 2 azken hiruhilekoan.

➤ **Testuingurua**

1969an piztu zen Martutene ikastola bat sortzeko ideia. Ondoren Loiolan honen berri izan zuten eta bertan ere lanean hasi ziren eta azkenik, Ergobi –Astigarragan ere bide berdina jarraitu zuten. Azkenean, 1972an, Astigarraga, Ergobia, Loiola eta Martuteneko gurasoek “Arantzazuko Ama ikastola “ sortu zuten. 1993. urteko maiatzean, gainontzeko ikastola guztiak bezalaxe, sare publikoan sartzeko aukera izan zuen. 1994ko martxoaren 1etik aurrera, ikastolaren titularitatea, Eusko Jaurlaritzaren Administrazioaren esku gelditu zen, juridikoki ikastola publikoa bihurtuz.

Arantzazuko Ama ikastolan, Loiola, Astigarraga eta Martutenek elkarrekin egin dute ibilbidea 2014. urterarte . Gaur egun, Arantzazuko Ama ikastola Donostiako Martutene eta Txomin* auzoen ikastola publikoa da.

Martutene auzoa, Donostialdeako langile auzoa dugu , lur industrial duena eta 3000 biztanle inguru dituena. Kultur eta kirol ekintzei dagokionez, auzoan badira hainbat elkarte eta zerbitzu aipagarriak: Sarroeta auzo elkarte, Etxarriene haur txokoa, Victor Amundarain mediateka, Gaztelekua eta Martutene kirol elkarte.

Ikasleen ezaugarriari erreparatuz esango dugu, gure familien maila sozio ekonomikoa bajua dela orokorrean eta familia askok jasotzen dutela gizarte zerbitzutako eta Foru Aldundiko laguntza. Honetaz gain, laguntza taldeko mapa nahiko zabala da, LH1go mailatik 6.maila arteko gela guztietan daude laguntza jasotzen duten ikasleak.

Arantzazuko Ama ikastolako familia kopurua kontutan izanda, 200 familia inguru, ikastola ertaina garela esan dezakegu. Linea bateko, D ereduko ikastola eta ondoko zerbitzu eta programak eskaintzen dituena:

- Jangela zerbitzua, HH, LH eta DBHko ikasleentzat.
- Eskolaz kanpoko ekintzak guraso elkarteak kudeatuta.
- Psikomotrizitate banakako terapia.
- Donostiako Udaletxeko arreta goiztiar programa.
- Victor Amundarain mediateka
- Hezkuntza saileko bidelaguna programa.

Elkarbizitzak beti izan du ikastolaren ibilbidean garrantzia eta Arantzazuko Ama ikastolak ibilbide berria hasi zuenetik 2014-15 ikasturtean, hainbat ekintza txertatu izan ditugu urteko planetan. 2014-2015 ikasturtean harrera plana diseinatu zen, ikasturteko lehenengo egunetan talde izaerari garrantzia emanez, gela guztietan kohesioa landuz eta indartuz. Hurrengo ikasturtean tutoretza plana berritu zen eta urtero hobekuntzak proposatu izan dira. Bidelaguna programaren eraldaketa, indartze neurrien plangintzak... dira besteak beste azken urteotan landu diren alderdiak.

Ondorengo dokumentuan, Arantzazuko ama ikastolan elkarbizitza positibo bat izateko jorrazteko ditugun alderdiak aztertu eta hurrengo urtetarako helburuak planteatzen ditugu.

2.Elkarbizitzaren definizioa

Arantzazuko Ama HLH ikastolako komunitateak horrela definitzen du elkarbizitza positiboa:

"Pertsona bakoitza onartua izatea errespetuzko partaidetza sustatzen duen espazio seguruan. Zeinetan aurrez adostutako arauen bitartez, modu asertibo eta enpatikoan, gatazkak aztertzeke guneak eta unea eskaintzen diren konfidantzazko harremanak sortzeke."

3.IKASTETXEAREN ELKARBIZITZAREN DIAGNOSTIKOA

Gure ikastolako elkarbizitzaren egoerari buruz datuak jasotzeke prozesuan, zenbait inkesta eta bilera burutu dira eragile ezberdinekin eta 7 eremu ezberdinetan banatutako alderdiei buruzko iritziak jaso dira:

➤ **Eremuak:**

- Hezkuntza politika
- Elkarbizitzaren antolaketa
- Gatazken kudeaketa
- Partaidetza
- Emozioak, sentimenduak eta identitatea
- Irakatsi eta ikasteke prozesuak
- Irakaskuntza estiloa

Jasotake datuak aztertu ondoren, emaitza honakoa izan da:

➤ **IRAKASLEAK**

Hezkuntza politikaren eremuan, oso argi dute gure ikastetxearen hezkuntza-ardatzak ikasleek heldutasun pertsonala lortzea eta elkarbizitza on bat eta ekitatea direla, baita ikuspegi inklusiboa dugula eta gizarte jarrera baikorrek sustatzen direla

ikasleen artean. Hala ere, buru izango den zuzendaritza taldea sortzeko ahaleginetan hobetu beharra dagoela ikusten dute irakasleen koordinazio leku eta denborarekin batera.

Elkarbizitzaren antolaketa eta kudeaketa eremuan, gatazkei modu eraikitzailean heltzen zaiela, elkarrizketan, enpatiaz eta irmotasunez ikusten eta

ikastetxeak giza-baliabideak eta baliabide materialak erabiltzen dituela elkarbizitza positiboa garatzeko. Bestalde, lana dago oraindik estamentu jarduerak antolatzerakoan estamentu bakoitzak bere ospakizunak antolatzen bait ditu.

Gatazkaren eraldaketa eremuan, elkarrizketa, lehen urratsa entzutea, bestea eta bere berezitasunak onartzea, laguntza pertsonala eta adostasuna bilatzea dira ohiko estrategiak gure elkarbizitzan. Eremu honetan, hezkuntza-komunitate osoarentzat une eta gune batzuk sortzea eta sistematizatzea falta zaigu.

Irakasleen gehiengoak **partaidetza** ona dela baloratzen dute, baina informazioa trukatzeko eta itzultzeko bidean hobetzeko daukagula eta bapatekotasunaren eta aurkako interesen ondorioz, bakoitzak bere burua babeste aldera jokatzen duela.

Emozioak, sentimenduak eta identitateari dagokionez, elkarri laguntzea ikastolako ezaugarrietako bat bezala ikusten dute eta aurrera egiteko bidea aukerak kontutan hartuz egiten dela, akatsetatik ikasiz, zailtasunak gaindituz.

Irakatsi eta ikasteko prozesuen eremua da hobeto baloratzen dena, antolatzen diren eduki eta jarduerak motibatzaileak dira, ikasleen interesekoak, elkarlana eta ikasleen partaidetza bultzatzen dutenak.

Irakaskuntza estiloaren eremuan, azpimarragarria da profesionaltasuna eta inplikazioak, benetako gogoak, irakatsi eta ikasteko konpromisoa eta inplikazioa.

➤ IKASLEAK

Orokorrean ikasleak lasai sentitzen dira haien buruarekin eskolan eta eremu guztietan, aipatzekotan komunak eta futbola aipatuko ditugu. Komunetan ikasleen jarrera desegokiak ematen direlako batzuetan, adibidez intimitatea ez errespetatuz eta futbolari dagokionez, leku asko hartzen duela eta patioa mugatzen du. Beste eremuei dagokionez, kideei dagokienez, haien arteko harremanak orokorrean onak direla aipatzen dute baino datu esanguratsua da 6. mailakoak geletan ongi moldatzen

direla aipatzen dute eta jangela garaian diote haien artean errespetu faltak eta haserreak izaten dituztela. Ikasgeletan eta jangelan jarrera ezberdina dutela diote. Talde lanean ere gora beherak izaten dituzte maila gehienetan baino gustuko dute horrela lan egitea. Irakasleekin gustura sentitzen dira ikasleak maila guztietan eta baita lan egiteko moduarekin, batez ere proiektuak lan egitea baloratzen dute ongi eta haien iritzia kontutan hartzen dela sentitzen dutela.

➤ FAMILIAK

Orokorrean patioan familiak ondo sentitzen dira, informazioa elkarbanatuz...giro ona dagoela diote. Auzoko parkeak ere elkar ezagutzeko aukera ematen dietela aipatzen dute. Gela bilerei dagokionez, orokorrean ondo sentitzen dira baino badira hizkuntzarengatik deseroso sentitzen direnak. Euskarak hartzen du tokia eta ulertzen ez dutenak ez dute nahikotzat baloratzen idatzita dagoena.

Irakasleekin harreman oso hurbila dela diote, oso gustura daude familiak.

Blogak, emailak, erreminta oso onak direla diote, hala ere irakaslearen arabera informazio gehiago edo gutxiago, maiztasuna.... izaten dute. Datu babesa aipatzen da, askotan ez omen da zaintzen eta blogaren hizkuntza baita, dena euskaraz egoten delako.

Metodologia, etxeko lanak, notak... lasai daude gurasoak, ikasleak gustura ikusten dituzte eta konfidantza dute ikastolan. Ikasleak pozik ikusten dituzte bai kideekin bai irakasleekin.

Jangelari buruz kezka gehiago dago. Badira oso lasai dauden gurasoak baino baita kezka dutenak, giroa patioan, funtzionamendua, informazio gehiago nahiko lukete.

Parte hartzeari buruz diote guraso elkarteak lana egiten duela nahiz gehiengoak onartu ez dutela parte hartzen edo ez dutela informazio gehiegirik. Zuzendaritzarekin oso pozik daude. Jaialdiei buruz aipatzen da irakaslegoa asko inplikatzeko dela baino ez da aipatzen gurasoen partehartzea.

Gatazken kudeaketa eta elkarbizitza arauak buruz, iritzi ezberdinak daude. Batzuk ondo bideratzen direla diote, beste batzuk kostata bideratzen direla, batzuk ez omen dute esperientziarik izan honetan, ikasle batzuk badakite nola jokatu gatazka baten aurrean, besteak ez, irakasleekin berdin...

Irakasleak ikasleekin duten harreman ona dela uste dute, ikasleak oso zainduak daudela eta oso gustura ikusteak lasaitasuna ematen die.

Azkenik, ikastolak elkarbizitza positiboa garatzeko duen ahalmena gorai patzen dute. Arlo honetan ona egiten dela diote.

➤ **JANGELAKO BEGIRALEAK**

Kideen artean ondo sentitzen dira orokorrean eta eremu ezberdinetan. Irakasleekin dituzten harremana erraza bezala definitzen dute. Jangelako funtzionamenduari buruz aipatzen da ebaluazioaren zati bat izan beharko litzatekela, aparteko eremu informal gisa hartzen dela eta ez dela egokia. Bestalde, jaten eta ohitura egokiak lantzen direla diote. Ikasleen arteko harremanak onak direla diote, haien arteko harremanak zaintzen direla eta pozik ikusten dituztela. Begiraleek ikasleekin dituzten harremanak ere onak direla diote.

Zuzendaritza talde eta arduradunarekin gustura daude, entzunak eta ulertuak sentitzen dira eta beharra dagoenean laguntza jasotzen dute.

Elkarbizitza arauekin ados daude eta gatazken haurrean lasai sentitzen dira ikastolan erantzun egokia ematen zaielako, ondo bideratzen dira.

Ikastolak elkarbizitza positiboa sustatzeko ahalmena erakusten duela diote.

➤ **ESKOLAZ KANPOKO EKINTZETAKO BEGIRALEAK**

Egin izan dituzten bilera gutxietan ondo sentitu dira. Whatsap taldeei buruz aipatzen da gurasoekin adibidez informazioa errez partekatzeko balio duela baino gaizki ulertuak ere eman daitezkeela. Denak aipatzen dute gurasoekin duten harremanarekin ondo sentitzen dira. Irakasleekin harremana duten begiraleek ona dela diote eta haien iritzia kontutan hartzen dutela diote. Kolaboratzeko prest daudela baino ez dute begirale guztiak harremana irakasleekin. Funtzionamenduari buruz aipatzen dute haurrak gustura ikusten dituztela eta beraiek ere gustura daudela. Ikasleen arteko harremanak orokorrean onak direla diote. Integratuak daudela eta gustura ikusten dituztela. Begiraleekiko konfidantza dutela nabaritzen dute. Arduradunari buruz alde batetik begirale erdiek lana errazten duela aipatzen daute eta komunikazio ona dagoela eta beste erdiak berriz komunikazio falta dagoela. Zuzendaritzari buruz iritzi ona dute, laguntzeko prest azaltzen dela. Elkarbizitzari buruz aipatzen da ikastolako arauak ezagutu nahiko litzuketela. Dena den, ikasleen artean gatazkak nahiko ondo kudeatzen dituztela aipatzen dute eta baita begiraleek ondo kudeatzen dituztela. Azkenik ikastolan orokorrean giro ona dagoela aipatzen dute eta ikasleak zoriontsu ikusten dituztela.

4. HELBURU OROKORRAK

Elkarbizitza Planaren helburuak definitzeko, diagnostikoan identifikatutako indarguneak eta ahulguneak erabili ditugu. Horrela ba, 7 eremuetan antzemandakoak jasota daude ondorengo helburuetan:

Eremuak

- 1.Hezkuntza politika
- 2.Elkarbizitzaren antolaketa
- 3.Gatazken kudeaketa
- 4.Partaidetza
- 5.Emozioak, sentimenduak eta identitatea
- 6.Irakatsi eta ikasteko prozesuak
- 7.Irakaskuntza estiloa

Helburuak

1. Gatazken kudeaketa landu eta kudeatu.
2. Eskolako estamendu guztien partaidetza sustatu.

5.HELBURUEN LORPENA SUSTATZEKO EGITURAK

➤ **Elkarbizitza Behatokia**

Elkarbizitzaren behatokia gure kontsulta-organoa da eta gure ikastolako elkarbizitza ezagutu, aztertu eta ebaluatzeko baliabidea dugu. Behatokiak ikastolako elkarbizitza positiboa izan dadin lan egingo du eta hortarako, ondokoak burutuko ditu:

- Arrisku faktoreak identifikatuko ditu eta ekintza eraginkorrak proposatuko ditu.
- Prestakuntza arloko jarduerak proposatuko ditu.
- Gure Elkarbizitza Planaren jarraipena egingo du.
- Gerta litezkeen indarkeria eta eskola-jazarpen kasuak ez dira bertan landuko baino bai kasuen ondorioak eta sortuko diren beharrak, kudeatuko ditu.

-Sistematizatuta dauden eta elkarbizitzarekin lotura duten ekintzen jarraipena.

Behatokia, aholkulariak, zuzendaritza taldeko kide batek, irakasle batek, jangelako begirale batek eta bi gurasok osatuko dute eta gutxienez hiruhilekoan behin elkartuko dira.

6. ELKARBIZITZA PLANAREN URTEKO ZEHAZTAPENA

Ikastetxeko Urteko Planean, ikastetxeko elkarbizitza hobetzeko helburuak sartuko ditugu. Helburu hauen plangintza eta jarduerak garatuta daude hurrengo atalean azaltzen diren tauletan, baita arduradunak, denborak, baliabideak eta jarraipen- eta lorpen-adierazleen zehaztapena ere.

Helburu horien ebaluazioa ikasturte amaierako memorian islatuko da eta kontuan hartuko da hurrengo ikasturteko elkarbizitza-helburuak ezartzean. Elkarbizitzaren Behatokiak, hau da eskola-komunitateko sektoreen ordezkariak biltzen duen estamentuak, urtero elkarbizitzarako helburuak proposatuko ditu, eta garatu beharreko jardueren diseinuan eta jarraipenean parte hartuko du.

Halaber, Urteko Planean estamentuen parte hartzeko modua, ordezkariak, eta bakoitzaren zereginak eta erantzukizunak. Prozedurak ezarriko dira komunitateko kide guztiek ikasturte bakoitzeko helburuak ezagutu ditzaten, eta haiek lortzen lagun dezaten.

7.HELBURUAK LORTZEKO JARDUEREN PLANIFIKAZIOA

1.Helburua: Gatazken trataera landu eta kudeatu.				
Ekintzak	Arduraduna/k	Denboralizazioa	Baliabideak	Lorpen-adierazleak
1.Gatazken trataerari buruzko prestakuntza: 1.1.Irakasleekin 1.2.Familiekin, jangela eta kanpoko ekintzetako begiraleekin 1.3.Ikasleekin	-Z.T. -Behatokia -Tutoreak	-2022/2023 ikasturteko 1go hiruhilekoan. -Denekin lan saio bat. Irailak 20, 17:00-19:00 -Irakasleekin 2 lan saio. Irailak 21 eta 22, 17:00-19:00	-Emaileak (Cascon) -Dokumentazioa -Tutoritza plana	-Irakasleekin prestakuntza %100ean burutu da. -Familiekin, jangelako eta kanpoko ekintzetako begiraleekin prestakuntza %100ean burutu da. -Ikasleekin prestakuntza %100ean burutu da.
2.Gatazken trataerarako prozedura jasotzen duen dokumentua/dekalogo diseinatu.	-Z.T. -Behatokia	-2022/23 ikasturteko urrian, prestakuntza jaso ondoren.	-Emaileak -Dokumentazioa	-Dokumentua sortu eta zabaldu da.
3.Prestakuntza jaso GEUZ elkartearen eskutik. Entzumena enpatikoa. 3.1. Irakasleekin 3.2. Familiekin	-Z.T. -Behatokia	2022/23 -Familiekin: azaroak 3, 17:00-18:30 -Irakasleekin: urriak 27, azaroak 3 eta azaroak 10ean. 12:00etatik 13:30tara	-Emaileak -Dokumentazioa	-Irakasleekin prestakuntza %100ean burutu da. -Familiekin prestakuntza %100ean burutu da.
4.Adostokia landu:	-Z.T.	-2022/23 ikasturteko	-Dokumentazioa	-Adostokia sortu da.

4.1.Irakasleekin 4.2.Ikasleekin	-Klaustroa	abenduan lan saio 1	-Tutoretza saioa	
5.Postontziaren erabilera landu	-Z.T. -Klaustroa	-2022/23 ikasturteko abenduan	-Dokumentazioa -Tutoretza saioa	-Postontziaren erabilera martxan jarri da.
6.Arauak eta arautegien lanketa: 6.1.Irakasleekin prestakuntza 6.2.Ikasleekin prestakuntza 6.3.Familiekin prestakuntza	-Z.T. -Behatokia -Klaustroa	-2023/24 ikasturtean	-Berritzeguneko aholkularia (Ana Extramiana)	-Irakasleekin prestakuntza %100ean burutu da. -Ikasleekin prestakuntza %100ean burutu da. -Familiekin prestakuntza %100ean burutu da.
7.Arauak eta arautegien trataerarako prozedura jasotzen duen dokumentua diseinatu. 7.1.Ikastolako arautegia 7.2.Geletako arautegia 7.3.Espazio komunen arautegia.	-Z.T. -Klaustroa	-2023/24 ikasturtea	-Berritzeguneko aholkularia (Ana Extramiana)	-Dokumentua sortu da.

2. Helburua: Eskolako estamendu guztien partaidetza sustatu.

Ekintzak	Arduraduna/k	Denboralizazioa	Baliabideak	Lorpen-adierazleak
1. Zuzendaritza proiektuen dekretu berria landu klaustroan.	-Z.T.	-2022/23 ikasturteko 2. hiruhilekoa.	-Dekretua	-Dekretua landu da eta bileren aktetan jasota dago
2. Dekretu berriaren ondorioak atera.	-Z.T. -Klaustroa	-2022/23 ikasturteko 2. hiruhilekoa.	-Dekretua	-Dekretu berriaren ondorioak atera dira eta bileren aktetan jasota dago.
3. Ondorioak kontutan hartuta hurrengo Z.T. osatzeko adostasunak lortu.	-Z.T. -Klaustroa	-2022/23 ikasturteko 2. hiruhilekoa.	-Dekretua	-Hurrengo ZT osatzeko adostasunak hartu dira eta bileren aktetan jasota dago.
4. Hartutako erabakia memorian jaso eta hurrengo ikasturteko urteko planean txertatu.	-Z.T.	-2022/23 ikasturteko 2. hiruhilekoa.	-Memoria	-Hartutako erabakia memorian jaso da. -Hartutako erabakia urteko planean txertatu da.
5. Guraso elkarteari lekua egin gela bileretan.	-G.E. -Z.T.	-Irailan	-Gela bilerak -Baliabide pertsonalak	-Guraso elkarrekoak lekua izan du gela bileretan eta bileren gidoian jasota dago.
6. Gela bileretan itzultzaile laguntzaileak identifikatu laguntza emateko eta bilerako gai zerrendan txertatu.	-Z.T. -Tutoreak	-Irailan	-Gela bilerak -Baliabide pertsonalak	-Gela bileretan itzultzaile laguntzaileak identifikatu dira eta gai ordenean txertatu da.
7. Ikastolako web/blog erabilerako irizpideak markatu. Klaustroan lanketa egin, batzodearen partaideak izendatu eta funtzioak eta helburuak	-Z.T. -Klaustroa -Batzordea	-Ikasturte hasieran -Jarraipena hiruhileko bakoitzeko.	-Batzordea -Teknologiak (web/blog)	-Ikastolako web/blog erabilerako irizpideak zehaztu dira. -Ikastolako web/blog erabilerako irizpiden jarraipena egin da.

zehaztu (maiztasuna, edukia, ardura, errebisioa...)				
<p>8."Ikasle aktiboak jangelan" proiektua berreskuratu, klaustroan eta jangelako begiraleekin landu.</p> <p>8.1.Ikasleekin onartutakoa landu tutoretzan.</p> <p>8.2.Proiektuaren jarraipena egin.</p>	<p>-Z.T.</p> <p>-Klaustroa</p> <p>-Jangelako arduraduna</p> <p>-Jangelako begiraleak</p>	<p>-2. hiruhilekoan</p> <p>-3. hiruhilekoan</p>	<p>-Proiektua</p> <p>-Aktak</p> <p>-Tutoretza saioa</p>	<p>-"Ikasle aktiboak jangelan" proiektua berreskuratu da.</p> <p>-Ikasleekin proiektua landu da.</p> <p>-Proiektuaren jarraipena egin da.</p>

8.ZABALKUNTZA

Elkarbizitza Planeko helburuak modu arrakastatsuan lortzeko komunitateko kide guztiek ezagutu behar dituzte. Horregatik:

- a) Ikastetxearen webgunean Elkarbizitzaren Plana ikusgai jarriko da. Bertan esteka bat jarriko da, non Elkarbizitza Plana eta Behatokiaren funtzionamendua hobetzeko iritzi, iradokizun eta proposamenak eman daitezkeen.
- b) Ikasturte-hasierako bilerak. Ikasturtearen hasieran familiarekin, ikasleekin, klaustroarekin, guraso elkarrekin eta abarrekin izaten diren bileretan, hainbat gairen artean, Ikastetxeko Elkarbizitza Planaren funtsezko zenbait alderdi eta haien urteko zehaztapenak aztertuko dira.
- d) Tutoretza Planaren jarduera-programaren barnean, tutoretza-saioetan Ikastetxeko Elkarbizitzarako Planaren helburuak eta jarduerak aurrera eramango dira.

9.JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Urtero, ikasturte amaieran ematen den galdera-sortan, ikastetxeko elkarbizitzari eta elkarbizitza hori hobetzeko egindako jarduerari buruzko galderak egingo dira.

Elkarbizitzaren Behatokiak gutxienez lau urtetik behin Elkarbizitza Planaren ebaluazioa egingo du. Ikastetxeko zuzendaritzak eta Elkarbizitzaren Behatokiak alderdi hauek aztertuko ditu:

- a) Hezkuntza-komunitateak zenbateraino ezagutzen duen Elkarbizitzaren Plana. Kontuan izan behar da kideak denborarekin aldatu egiten direla. Hori dela eta, bi urtez behin behatokiak galdera-sorta bat pasatuko die irakasle, ikasleei eta familiei, hauek aztertu eta erabakiak hartzeko.

b) Ikastetxeko zuzendaritza arduratuko da ikasturterako planifikatutako helburu eta jarduerak kudeatzeaz, eta Elkarbizitzaren Behatokiari emango dio kudeaketa horren berri. Ebaluazio hori Urteko Memorian jasota geratuko da.

d) Elkarbizitza Planaren helburuen jarraipena eta ebaluazioa. Elkarbizitzaren helburuen bilakaera erregistratzea delako eranskinean, proposaturiko helburu orokorren lorpen-maila jasota geratuko da. Horrela ikusi ahal izango da denboran zehar nola zehaztu eta landu diren. Garrantzizkotzat jotzen diren ekintzak ere erregistratuko dira.

10.ERANSKINAK

ELKARBIZITZA PLANEKO HELBURUEN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA. AURRERAPENAREN ERREGISTROA

1. HELBURU OROKORRA: Gatazken trataera landu eta kudeatu.		
Ikasturtea	Jarduera	Lorpen adierazlea

2. HELBURU OROKORRA: Eskolako estamendu guztien partaidetza sustatu.		
Ikasturtea	Jarduera	Lorpen adierazlea

